

AUGUSTIN ZUBIKARAI'RI OMENA

ALDUNDIAN

Jorrail onen 18'an, Bizkai'ko Aldundegian, ekiñaldi eder eta atsegingarria izan genduan: Zubikarai'tar Augustin euskalzaleari omenaldia.

Asko poztu gintzazan orain urte batzuk iñoren eskue-tara jausita ikusi izan dogu gure etxe eder orretan euskal-giro ain bizia ikusteagaz, ederra giroa, geure-geureak giro orretan ikusi genduzan gizonak eta atsegingarriak aurrean egin euskuezan dantza-aldi bizkor eta eguneratuak.

MAIA

Areto ederrean eta aurreko maian gizon maitagarriak agiri ziran: Zubikarai omendua erdi-erdian, Aldun Nagusia ta Bizkai-Batzarren Burua, Uribe-Etxebarria jakintza-ko aldun maitagarria eta berba-aldi egokia, zeatza eta txalogarria emon eban Erkiaga adiskidea.

Eta inguruan Ikusirratiko langilleak, Erri-Irratikoak, izparlariak eta abar.

Txistulariak, omenari erri-kutsua ugaritzeko mai-inguruan.

BEIAN

Omenaldian ondoan neukan batek auxa esaten eustan: Jente zeia ikusten da emen, geure antzeko jentea.

Begiratu egizu ondo eta ikusi nortzuk dagozan, esan neutsan, gizon aundi eta ospetsu asko daukazu: Aldunak,

Zuzendari Orokorrak, parlamentariak, Alderdi politikue-tan gorengo maillan dagozenak... Baiña errazoia daukazu, jente zeia dira, geure antzekoak, eta ez beste aldi batzutan ikusten ziran lako gizon aundiak edo beintzat euren burua aundizat eta garrantzitsutzat euenak.

Areto aundia bete-beterik egoan eta guztiak pozez eta atsegin-giroan.

AUGUSTIN

Baiña gure begiak beti joten eben Augustin beragana. Barru-bero ikusten zan. Berotasun ori aurpegiko leio bie-tatik bizi agertzen jakola, pozik baiña "nok ekarri nau ona" esaten lez edo "au euskalzale guztiai zor jaken gau-zea da".

Esker ona agertzen eban, baiña, berak esan eban lez, lan aundi baten eta askoren artean egiten dan lanaren ezaugarri lez.

BERTSOETAN: AZPILLAGA-PAULIN

Ezin alboratu olako giroan geurea dogun bertsolaritza.

Azpillaga'k bere ekiñaldi ederra egin eban eta azkene-rantza, Augustin berak eskatuta, Solozabal'dar Paulin'en olerkari-ekiñaldia.

Azpillaga'ren bertsoak ez daukaguz eskuetan, baiña bai Paulin'en olerkiak, one emen:

Lenen agurra, zuri, euskera,
Euskaldunen arimla
Millaak urtetan euskal gizonak
Sortu eben izkuntzia;
gure gizonak jatorrak ziran
alan euren izkeria,
gizon ta izkuntza bat egin ziran
Sorturik Euskalerrria.

Mendi artean jalo zan itza
Arri ta garo usalan,
gure arbaso, erraldol arek
Zer euen euren miiñan;
Ain jakintsua dan izkuntzea,
Sortzeko baso erdian,
izarra egon argi egiten
euzko mendi tontorrian.

Mutil kozkorak giñan aldian,
Añ intzan izkuntz jorran,
Solo ederra euskerarena
Ire ametsen baillaran;
Gure baserri aintzagarriak
Txoriak kanta Kalolan,
Enda zarraren abestia zan
Euzko izkuntza solñuan.

Itxas aldetik eta menditik
Artzen eban arnasla,
Erriak berak erraletatik
Eskeintako bizia;
Larros orriak ituan itzak
Zuri, gorri lez orlela,
Gaur-izatea, or, agertzen dok,
euskera argi, garbia.

Ezin aspertu ta ezin egon
Bultzaka maltasun dana,
Burua legez blotza ere
Mendi —zela— lur bakana;
Erleak legez miazkatu dok
Euskera edertasuna,
T'ezti blurtu itzaren bidez
Jakitunen arrimena.

PAULIN

